



EBAZPENA, 2019ko maiatzaren 10ekoa, Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendariarena, 2018-2019ko ikasturtean unibertsitate- eta goi mailako beste ikasketa batzuk egiteko beka-deialdiaren eskaeren Ebazpena egiten duena.

2018ko uztailaren 3ko aginduaren bidez (2018ko uztailaren 10eko EHAA), Hezkuntza sailburuak beka-deialdi bat egin zuen, 2018-2019ko ikasturtean unibertsitate- eta unibertsitatekoak ez diren beste goi ikasketa batzuk egiteko.

Hainbat behin-behineko proposamen argitara eman eta jakinarazi ondoren, beka orokorrari buruzko 8. behin betiko ebazpena, deialdiaren azkena, egiten da. Ebazpen horretan azken proposamena onartu duten pertsonak edo ebatziak izan diren aurkeztutako hainbat alegazio sartzen dira.

Horregatik, aipatutako aginduan ezarritako prozeduraren gainontzeko arauak bete direnez,

#### EBAZTEN DUT:

Lehen artikulua.- Deialdi horren 8. behin betiko ebazpenaren berri ematea 2018-2019ko ikasturtean unibertsitate- eta beste goi ikasketa batzuk egiteko deialdian parte hartzen duten eskatzaileei. Eranskinean eskaerak, beka emateko edo ez emateko ebazpenarekin batera, zerrendatzen dira. Ebazpenak zehatz kontsultatzeko, eskatzaileek beren espedienteak Eusko Jaurlaritzaren beka-aplikazioan kontsultatu beharko dituzte.

Bigarren artikulua.- Hilabete bateko epe bat irekitzea, ebazpena egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitara eman eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, eranskinean aipatzen diren eskatzaileek prozedura-ebazpen horren aurka gora jotzeko errekurtoa aurkezteko Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordeari.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko maiatzaren 10a.

Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendaria

MIREN ARTARAZ MIÑÓN